

19/02 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ainara Ibañez
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko urtarrilaren 30eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: EAEko Maisu-maistren eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko eta EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurak deitzen dituen Agindu proiektuari buruzkoa.

I. AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, bere 16. artikuluan dio lehiaketa-oposaketa izango dela karrerako irakasle funtzionarioak hautatzeko sistema eta lehenik deialdi publikoa egingo dela.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren (zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia eta zeinaren bidez arautzen baita aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena) 3. artikulua dio administrazio publikoek, dagozkien enplegu eskaintzak onartu ostean, deialdiak egingo dituztela aipatu enplegu eskaintzetan baimendutako plazak hornitzeko, uneoro aplikatzekoak diren Funtzio Publikoko arauak jarraiki.

Bestalde, III. Tituluak sartzeko sistemari buruzko xedapenak jasotzen ditu.

II. EDUKIA

Agindu proiektuak 2 artikulua eta azken xedapen bat dauzka: lehenak LEPa deitzen du eta 2. artikulua deialdiaren oinarriak onartzen ditu. Azken xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da.

Lehen titulua sartzeko prozedurari buruzkoa da, eta 11 kapitulutan banatuta dago. Lehen oinarrian jasotzen dira xedea, parte-hartze txandak, plazak eta aplikatzekoa den araudia.

Sartzeko prozeduraren gainerako oinarriek izenburu hauek dituzte:

2. Parte hartzeko baldintzak
3. Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa
4. Onartutako eta baztertutako hautagaiak
5. Hautaketa-organoak
6. Oposaketa fasea:
 1. atala, atariko probak
 2. atala, oposaketa faseko proben definizioa eta ezaugarriak
7. Lehiaketa fasea
8. Lehiaketa eta oposizio faseak gainditzea
9. Praktika-fasea
10. Karrerako funtzionarioak
11. Ordezko irakasle izateko hautagaien zerrendak.
12. Datu orokorren tratamendua

I. eta II. eranskinek merezimenduen baremoak jasotzen dituzte; III. eranskinean aipatzen dira zeintzuk diren musika eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoan irakatsi ahal izateko tituluen baliokidetzak. IV. eranskinean kidego desberdinetako kurrikuluak jasotzen dira eta V. eranskinean, berriz, gaiak; VI. eranskinean oposizio-faseko proben balorazio-irizpideak ezartzen dira.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honen bidez deialdia egiten da hainbat kidegotarako hautaketa-prozeduretarako. Guztira, 1.867 plaza esleituko dira eta horietatik %7 erreserba txandarako gordeko dira: 1.825 Maisu-maistren kidegorako; 32 Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegorako eta 10 Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegorako.

2018ko birjartze-tasa 871 plazakoa izan da. Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, deialdira bildutako kidegoetan dauden 9.824 plazetatik 7.922 funtzionarioek eta lan-kontratudun langile finkoek betetzen dituzte; eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bitartekotasun-portzentajea %26,48koa da %100eko lanaldia duten lanpostu hutsen okupazio errealararekin alderatuta.

Horregatik, Kontseiluak positiboki baloratu du lan eskaintza berri hau bitartekotasuna murrizten lagunduko duelako, eta planteatu du komenigarria dela aldian behin Lan Eskaintza Publikoen deialdiak egiten jarraitzea, plantillen

ezegonkortasuna ahalik eta gehien murrizteko, kontuan izanik, batetik, gero eta irakasle gehiago ordezkatu beharko direla, eta bestetik, irakasleek profil berriak behar dituztela.

Horrez gain, berriro dakargu gogora Kontseiluak 2012-2013ko txostenean egin zuen proposamena, zeinaren bidez eskatu baitzion Hezkuntza Sailari txosten bat egin zezala aztertzeke zeintzuk diren behin-behinekotasunaren arrazoiak eta ba ote dagoen premiarik espezialitateko irakasle berriak sartzeko sisteman; bide beretik, eskatu zion eskain ditzala konponbideak egonkortasuna hobetzeko eta irakasleen erreleboa planifikatzeko. Bestalde, kontuan hartu beharko lirarteke oposizioetako datuak, aurkeztu diren bitarteko langileen portzentajea, gainditu dutenena, e.a.

A.- GOGOETA OROKORRAK

Ezagutzaren eta ikaskuntzaren gizartean hezkuntzak erantzun berriak eman behar ditu, eta erantzun horiek bideraturik egon behar dute gizarte hori eraikitza eta bizi osorako ikaskuntza sustatzera. Beraz, irakasleek aldaketa handiei aurre egin behar diete, bai euren irakaskuntza-lanean, bai eta ikastetxeen funtzionamenduan eta antolakuntzan, eta aldaketa horiek funtsezkoak izango dira euskal hezkuntza sistemaren kalitatea bermatzeko.

Etorkizuneko irakasleak gai izan behar du ezagutzak integratzeko eta gai izan behar du ziurgabetasun egoeretan judizioak formulatzeko, kontuan izanik sarritan judizio horiek ondorio sozial eta etikoak ekarriko dituztela. Irakasleek ongi komunikatu behar dituzte euren ezagutzak eta euren ekintzak bultzatu dituzten azken arrazoiak, ez soilik ikasleen aurrean, baizik eta baita ere publiko espezializatuaren eta ez espezializatuaren aurrean, eta beti modu argian eta anbiguotasunik gabe. Era berean, gai izan behar du ikasteko, hau da, bere kabuz eta modu autonomoan ikasten jarraitzeko bere bizitza profesional osoan.

Hori guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da baldintza horiei erantzuteko gaitasun-profil egokia duten irakasleak aukeratzea. Hauek dira profil horren alderdiak: **1/ nortasuna eta baloreak** (Autonomia, pertsona bezala izan behar duen sendotasuna, justizia soziala eta irakaskuntzarekiko konpromisoa, pentsamendu kritikoa eta analitikoa, jakin-mina, ikasteko eta sortzeko gogoia, eta, azkenik, eskola- eta gizartekomunitate zehatz bateko kide izatearen sentimendua, harekiko konpromisoa eta kultura artekotasunaren eta hezkuntza arloko inklusioaren aldeko kontzientzia). **2/ Ezagutzak** (erreferentzia-marko pedagogiko eta didaktiko eguneratuak eta zorrotzak, espezifikoak eta diziplina artekoak) eta **3/ Trebeziak** (berritzeko gogoia, jakin-mina, sormena...)

Indarrean dauden sarbide-sistema eta probak ez dira eraginkorrak eta gaur egungo hautaketa-prozedurek ez dute bermatzen aukeratutako hautagaiak beharrezko gaitasun-profila izango dutenik.

Kontseiluak badaki Estatuko legeriak muga handiak jartzen dituela, baina ez dira gaindiezinak. Estatuko oinarritzko araudia azterturik, lortu liteke legeria hori errespetatzea eta, aldi berean, aldaketa garrantzitsuak egitea. “Esplicituki debekatuta ez dagoen guztia onartuta dago” irizpideari jarraiki, posible da sistema berri bat diseinatu eta praktikan jartzea, egungo beharretara egokitutako hautaketa zorrotz bat egiteko.

Kontseiluak positiboki baloratzen du enplegu eskaintza, egonkortasuna ematen baitie irakasleen kidegoei, baina uste du bitarteko irakasle guztiek derrigor aurkeztu beharko luketela probetara deialdia egiten den bakoitzean.

B.- ARTIKULUEI BURUZKO OHARRAK

Agindu proiektu honek aldaketa hauek egiten dizkio 2017ko Maisu-maistren LEPa arautu zuen aginduari (2017ko otsailaren 21eko Agindua). Aldaketa horietako batzuk ageri dira jadanik Bigarren Hezkuntzako LEPean (2018ko otsailaren 26ko Agindua):

- Desgaitasuna duten pertsonen txandako betekizunak: txanda honek bere baitan hartzen ditu “irakaskuntzakoa ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa aitortua dutenak” (2.4 oinarria).
- 10 egunetik 5 egunera murriztu da onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea. (4.2 oinarria).
- Langileen Kudeaketako Zuzendaritzak, eta ez “Hezkuntza sailburuak”, zuzenean izendatuko ditu epaimahaiburuak. (5.2.2 oinarria).
- 2019-20 ikasturterako izendatutako zuzendariak ez dute parte hartu beharko epaimahaikide bezala; salbuespen kasuak ere zehaztu dira. (5.2.2 oinarria).
- Hautaketa-batzordeak: batzorde horiek izendatzeko modua zehazten da; 10 epaimahai baino gehiago daudenean, Langileen Kudeaketako Zuzendaritzak izendatuko du batzordeburua (5.3 oinarria).
- Figura berri bat sortu da: epaimahaiari laguntzeko koordinatzailea (5.9 oinarria).
- Kalte-ordainei eta dietei buruzko atal berria sortu da (5.10 oinarria)
- Maisu-maistren kidegora sartzeko proba praktikoaren iraupena murriztu egin da 3 ordutik 2 ordura. (7.1.1.1 oinarria).

- Programazio didaktiko bat aurkeztea: zenbait baldintza formal ezabatu dira (letra-mota eta letraren tamaina) eta lanaren luzera luzatu da (40-60 folio bitartean, lehen gehienez 50 zirelarik). (7.1.2.1 oinarria).
- Zehaztu dira zeintzuk diren programazio didaktikoa ez entregatzeagatik baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzeko baldintzak. (7.3.1 oinarria).
- Aldatu egin da lehen probaren bi zatien haztapena, orain 70/30ekoa izango da, lehen 60/40koa zen bitartean. (7.4.1.1 oinarria).
- Bigarren probako oposizio-fasearen kalifikazioan esaten da zati hori 0 punturekin kalifikatuko dela programazioak ez baditu betetzen baldintza formalak. (7.3.2. oinarria).
- Oposizio-fasearen kalifikazioa: esaten da epaimahaiek kontuan hartuko dituztela eranskinean adierazitako balorazio-irizpideak. Horrez gain, epaimahaikide guztien irizpideak bateratzeko eta ebaluazioa ahalik objektiboena izan dadin, errubrika sistema erabiliko da konpetentziak ebaluatzeko. (7.4 oinarria).
- Hauxe gehitu da: "Balorazioa egiteko, epaimahaiak kontuan hartuko ditu izangaiak gaiari buruz dituen ezagutzak, baliabide didaktikoak eta baliabide pedagogikoak". (7.4.1.2 oinarria).
- Lehiaketa-fasea: dokumentazioa entregatzeko epea zehazten da; espedienteko batez besteko nota ofizioz baloratuko da. (8. oinarria)
- Lehiaketa- eta oposizio-faseak gainditzea: bi faseen arteko haztapena aldatu da, lehen 2/3 eta 1/3koa zen, orain berriz 60/40koa (9. oinarria).
- Entregatu beharreko agirien artean sartu da osasun egoera egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria (11.1 oinarria)
- Praktika-fasean sartzea: praktika-fasea atzeratzeko aukerak zehazten dira. (11.5 oinarria).
- Praktika-fasea: fase honi buruzko zehaztapen gehiago sartu dira. (13 oinarria).
- Puntuak ematea ordezkoen zerrendetan sartzeko oposizio-fasea gainditu duten pertsoneri (16. oinarria).
- Merezimenduen baremoan kontuan hartzen da tituluaren espediente akademikoko batez besteko nota, 5,5 baino handiagoa bada. (I. eranskineko I II.1 atala).

- Baremoa. Irakasle-esperientziaren baremoan atal guztiak jaitسي dira, baina atal horretan lortu daitekeen puntu kopurua 5etik 7ra igo da; prestakuntza akademikoa eta etengabeko prestakuntza berdin mantendu dira (I. eranskina).
- Beste eranskin bat gehitu da, VI.a, oposizio-faseko proben balorazio irizpideekin.
- Proba praktikoari buruzko VII. eranskinaren idazkera berria.

Kontseiluaren iritziz, aldaketek oro har hobetu egiten dute prozedura.

Gainerakoari dagokionez, Kontseiluaren balorazio eta proposamenak jarraian adierazitako gaitan zentratu dira, oinarrietan agertzen diren hurrenkeran:

5. oinarria. Hautaketa-organoak:

- **5.2.2 oinarria**

Epaimahaien osaeran ezartzen da kideak zozketa bidez izendatuko direla, titular kopuruaren ondorioz zozketarik egin ezin den espezialitateen kasuan izan ezik. 5.2.3 oinarrian arautzen da borondatezko parte-hartzea. Bestalde, Errege Dekretuak dio lau bokaletatik 2 boluntarioak izan daitezkeela, halakorik balego.

Epaimahaietan profesional onak behar dira, konpetenteak eta konprometituak, ibilbide profesional arrakastatsu eta aitortua dutenak.

Probak oso une zailean egiten dira, ikasturte amaieran, eta une zaila dela diogu gauza asko daudelako egiteko eta izangaiak nekatuta daudelako. Beraz, ez da posible irakasle egokiak aurkitzea hautaketa-prozesu horretan laguntzeko.

Probak beste une batean egingo balira, pertsona egokiagoek parte hartu ahal izango lukete: Ikuskaritzakoek, eskoletako zuzendaritzetakoek, aholkularitzetakoek eta balio profesional aitortua duten irakasleek. Ez da inor behartu behar, baizik eta konbentzitu parte hartzeko gogoia izan dezaten (aitortza profesionala, c.v.-rako balorazioa, konpentsazio ekonomikoa, e.a.).

Epaimahaikideak aukeratutakoan, funtsezkoa da behar duten prestakuntza ematea hautaketa-prozesuan zorrotz joka dezaten. Elkarrizketa erdi-egituratuek hautaketa-prozesuen parte izan behar dute, eta bi unetan egin daitezke: praktika-faseko galderetan edo unitate didaktikoa defendatzean. Epaimahaiak osatzean, baliteke ohartzea psikologoak beharrezkoak direla batzorde horretan (sisteman psikologo asko daude, bai ikastetxeetan eta bai Berritzeguneetan). 5.6 oinarriaren

azken atalak aukera ematen du aholkulari espezialistak sartzeko epaimahaietan. Gainera, IVAPEk epaimahaikideak prestatu eta aholkatu ditzake.

Bestalde, zorrotasunez ebaluatuko bada, beharrezkoak dira irizpideak, prestakuntza espezifikoa eta esperientzia profesional baliozkotu eta aitortua duten pertsonak. Ikusirik irakasleen adina, datozen urteetan hautaketa-prozesu asko egin beharko dira, eta horregatik, komeni da prozesu horietan prestakuntza eta esperientziadun profesional-zorro bat izatea.

Oso positiboa iruditzen zaigu **koordinatzailearen** figura sartu izana (5.9 oinarria); joan den ikasturtean ongi funtzionatu dute Bigarren Hezkuntzako LEPea eta oso positiboki baloratu da euren laguntza.

Bestalde, 5.10 oinarria gehitu da, zerbitzuagatiko **kalte-ordainak jasotzeko eskubideari** buruzkoa.

Hala ere, iruditzen zaigu hori ez dela nahikoa eta epaimahaietako parte hartzea beste nolabait sustatu beharko litzatekeela; adibidez, *practicum*-ean parte hartzen duten irakasleei *merezimendu profesional bezala aitortzen zaie beren ekarpena irakaskuntzako funtzio publikoan sartzean, merezimendu lehiaketa eta deialdietan eta sustapen profesionalean.*

Horregatik guztiagatik, Kontseiluak uste du epaimahaikideak hautatzeko beste irizpide batzuk prestatu behar direla eta kide horiei behar duten prestakuntza eta ordainsaria eman behar zaiela, gorago adierazitakoaren arabera.

- **7.1.1 oinarria eta VII. eranskina. Oposizio-faseko probak**

Proba praktikoaren ezaugarriak 7.1.1.1 oinarrian eta VII. eranskinean daude jasota.

Lan eskaintzei buruz egin dituen azken txostenetan, Kontseiluak esan du proba horien ezaugarriak zehaztu behar direla.

VII. eranskinaren egungo idazkeran, neurri handi batean, sartu da Kontseiluak Bigarren Hezkuntzako LEPar buruzko 18/02 Irizpenean proposatu zuena Maisu-maistren kidegoko probek izan beharreko ezaugarriei buruz; gainera, VI. eranskinean jasotzen dira proba horren balorazio-irizpideak eta hori oso positiboa da.

Hala ere, berriz diogu proba praktikoak kasu zehatz bat izan behar duela ardatz, ikasgela kudeatzeko gaitasunei buruzkoa eta euskal hezkuntza-sistemaren baloreetan eta filosofian oinarritua: gizarteratzea, berdintasuna eta bikaintasuna. Aitzitik, ez lieke halako garrantzirik eman behar guztiz teorikoak diren gai ei eta espezialitatearen ezagutza akademikoari, espezifikoki jasotzen baitira lehen probaren B ataleko gai-multzoan.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Musika Kontserbatorio profesionaletako irakasleen kidegoei dagokienez, probaren edukia ez da aldatu; HEOetako irakasleen kasuan, gaiari buruzko ezagutzan zentratzen da eta kontserbatorioetako irakasleen kasuan, berriz, gaitasun tekniko eta musikalean. Aldiz, ez dira aintzat hartzen irakaskuntza-gaitasunak, alegia, proba honek egiaztatu behar lituzkeenak, kontuan hartu behar baita proba hau egiten dela irakasleak aukeratzeko eta bestelako gaitasunak (hala nola, musikalak, artistikoak edo hizkuntzari dagozkionak) probaren beste zati batean baloratzen direla.

Azkenik, berriro eskatzen dugu, epaimahaiek hala proposatuta, web orrian *erantsi daitezela kasu praktikoan hainbat adibide, hautagaiak behar adinako bermearekin prestatu dezaten proba.*

- **7.1.1.2 oinarria – B zatia: gai bat garatzea**

II. eranskinean jasotako gaiak dagokienez, Kontseiluak uste du gaiak eguneratu egin behar direla, bat etor daitezen irakasleen gaitasun profilararekin (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen 236/2015 Dekretuaren 30. artikuluan jasota dagoena).

Probaren zati honek notan duen portzentajea gutxitu egin da, %40tik %30era, eta hori positibotzat jotzen dugu. Ezagutzak proba estandarizatu baten bidez baloratu daitezke, zeina prozedura elektronikoa, azkar eta seguruekin zuzendu baitaiteke.

- **7.1.2 oinarria: Programazio didaktiko bat aurkeztea eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaltzea:**

Uste dugu idatzizko programazio didaktikoak berez ez duela diskriminazio-balio handirik; agindu honetan, 2018ko LEPearen ez bezala, ez da zehazten zenbateko puntuazioa ematen zaion aurkezpenari, baina uste dugu, baldintza orokorrak betez gero, programazio horren ahozko defentsa dela baloratu behar dena.

- **7.1.2.3.B oinarria: unitate didaktiko bat prestatzea eta ahoz azaltzea**

Hautagaiaren esku-hartzea amaitutakoan, epaimahaiak posible izango du edukia buruzko galderak egitea, gehienez ere hamabost minutuz.

Kontseiluak proposatzen du galdera horien ordezkariak erdi-egituratu bat egitea, zeinak bere baitan hartuko baititu adituek prestatutako gidoi bat eta ebaluazio errubrika bat edota profesionalen laguntza langileak hautatzeko.

Bestalde, badirudi 15 minutu gutxi samar direla galdera bidez jakiteko nolakoak diren izangaiaren jarrera, trebetasun eta alderdi pertsonal garrantzitsuak, hori dela eta, elkarrizketa hori **30 minutura luzatzea proposatzen da.**

- **7.3.2 oinarria:** Oposizio-fasea 2018ko ekainetik aurrera hasiko da.

Egun horietan hasiko da epaimahaiaren lana ere, eta horrek eragin negatiboa izan dezake ikastetxeen dinamiketan, ikasturteko azken asteak direlako. Aurreko irizpenean, Kontseiluak proposatu zuen probak aldi behingoak direnez, datak aztertu zitezela eta aurki zitezela egokiago batzuk, hezkuntza-komunitatearen lana ez oztopatzeko.

Kontseilu honek proposatzen du alda dadila proben egutegia eta egin daitezela ikasturtean zehar, tarte bat utziz proba batzuen eta besteen artean, prozesua ez dadin izan hain estresagarria eta denbora egon dadin proba bakoitza prestatzeko.

- **IX. kapitulua. Praktika-fasea.**

Probetako 1. eta 2. faseez gain, praktika-fasea ere funtsezkoa da, hautagaiak une horretan sartzen baitira irakaskuntzan lehenbizikoz, gainera, fase egokia da hautagaien irakaskuntzarako gaitasuna ebaluatzeko ikasgelako praktika errealean. Proiektu honetan praktika-fasearen ebaluazioari buruzko hainbat zehaztapen sartu dira, positibotzat jotzen ditugunak.

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen Ebazpen batek arautzen du fase horren garapena.

Kontseiluak uste du aurreko deialdietan argitaratutako Ebazpena oso egokia dela, eta ulertzen du oso garrantzitsua dela zorrotz aplikatzea. Horregatik eskatzen du jarraitu eta ebaluatu dadila zein neurritaraino betetzen den ebazpen hori.

Era berean, proposatzen du epaimahaiak egin dezatela ebaluazio hori eta ez daitezela desegin praktika-fasea bukatu arte.

- **16. Oinarria:** puntuak ematea oposizio-fasea gainditu duten pertsoneri.

Ezartzen da puntuazio hori hautagaien zerrendaren kudeaketari buruzko araudian erregulatuko dela. **Kontseiluaren iritziz, aldaketa hori, aurreko txostenetan ere eskatu izan dena, positiboa da. Aipatu araudi horretan zehaztu bitartean, espero du balioan jarriko direla ordezeko irakasleen zerrendan lehentasunezko postu bat eskuratzeko lortutako kalifikazioak.**

- **I. Eranskina. Merezimenduen baremoa**

Deialdi honetako merezimenduen balorazioan funtsean 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa jasotzen da, eta horregatik, irakaskuntza eta prestakuntza arloko esperientzia aztertzean irakaskuntza ofizialetan lortutako merezimenduak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Aurreko deialdiarekin alderatuta, “Aldez aurreko prestakuntza” atalak pisu gehiago du, 5 puntutik 7ra igaro baita. Horrela, bitarteko langileak errazago sartuko dira lanpostuetan. Horregatik azpimarratu nahi da ezinbestekoa dela deialdi guztietan parte hartzea.

Ikusi dugu ordezeko irakasle izateko hautagaien zerrendaren kudeaketa erregulatzen duen aginduko baremoak kontuan hartzen duela Haurreskolak partzuergoan haur-hezkuntzako hezitzaile gisa izandako esperientzia. Kontseiluak eskatua zuen aurreko irizpenetan kontuan har zedila esperientzia hori, beraz, uste dugu berdin aplikatu beharko litzatekeela oposizioaren lehiaketa-fasean, horretarako kontuan hartuz baita ere udal esparruko beste haur-eskola batzuk edo behar bezala akreditatutako eskola pribatuak.

Bestalde, *III.2 Beste merezimendu batzuk, Etengabeko prestakuntza* atalak huxe dio: “Hauekin lotuta egon beharko dute guztiek: lortu nahi duen espezializazioarekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin, hezkuntzaren soziologiarekin edo hezkidetzarekin”. Proposatzen dugu zerrenda horri “**aniztasunarekin**” gehitzea, uste dugulako gaur egungo erronka garrantzitsuenetako bat dela. -

- **VI. Eranskina: Epaimahaiek oposizio-faseko probak kalifikatzeko aplikatuko dituzten balorazio-irizpideak.**

Uste dugu oso positiboa dela deialdian balorazio-irizpideak argitaratzea, bai eta 7.4 oinarrian jasotzea Kontseiluak eginiko iradokizuna, hau da, beharrezko diren errubrikak erabiltzea eta epaimahaikideei helaraztea, horrela bermatzeko ebaluazioa berdina eta gardena izango dela epaimahai guztietan.

Hala ere, eta bat etorri proba praktikoari buruz adierazi dugunarekin, proposatzen dugu ezaba dadila ezagutzei buruzko guztia, ezagutza horiek



probaren beste zati batean baloratzen direlako, eta zentratu dadila soilik irakaskuntzako gaitasunetan.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2019ko urtarrilaren 30a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélide Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA